

MENDIKO JAIALDIA

1. Arratsaldero mendian zehar
zer ibilaldi gozoa!

Zoragrria iruditzen jat
gure izadi osoa..

Arran ta dunbaz behi, zaldi t'ardi,
bizi pilpilka basoa.

Hau ikusita berez sortzen da
errezua ta bertsoa,

besteak beste, hauxe bai dala
munduko paradisoa.

3. Goian zerua ta behean lurra
bitarte luze zabala,

bero samurra zabalduen jat
ama lurraren magala!

Janaritzen ta gozatzen gaitu
amak haurtxoa bezala.

Hemen biguntzen da gogorra ta
lasaitzen ziztrin petrara;

holako ama emon deuskun HA
ez da ez makala!

5. Gure egarri barrukoenak:

bakea ta osasuna,

eurok ezean, alperrikoa
gainerako ondasuna.

Ama-lurra da osagile bat
guztiz argi ta biguna:

haizez ta beroz barrizten gaitu,
argiz birbizten barruna.

Berez igertzen da berarengan
igaro dogun eguna.

7. Hau da bakea! Hau atsedena!

Mendian beti dago jai...

Jaialdi hontan parte hartzeko
bihotz-garbiak dira gai.

Jainkozalea mendizale da,
han sentitzen da Jainkoz blai.

Mendiko jaia txastatuz gero,
barrero noiz joango zai;

hemen gorputza gozatutzen da,
buru ta bihotza be bai.

2. Kaletik hurrun mendi aldean
hau bakardade isila!

Joan-etorri gozoan dantzut
hots, kantu ta doinu mila...

Goiko basoan haizeak txistu,
ondoan txirtxir kirkila;

txoriak txortxor, ibaiak murmur
egundoko iskanbila.

Soinugailu hau jotzen dauana
bai soinu-jole abila!

4. Izar, ilargi ta eguzkia

gotik argi egiteko,

lurra, aidea ta itsasoa

behetik jaten emoteko...

Bizileku hau emon euskunak

zoriontsu izateko,

ez dau onartzen batzuek mahaian,

beste batzuek mahaiepeko...

Alkarri jaten emon daiogun

eta ez alkar jateko.

6. Mendian ha zer zine polita!

Bada hemen zer ikusi:

bakoitzak bere ahalmen dohaiak
besteei nahi erakutsi...

Haundi ta txiki apain jantzita,
bilusik be ez itxusi!

Eskola hontan Maisu dogu-ta
entzun daiogun Jesusi:

Guztiak onak dirala baina
gizona dala nagusi.

8. Izadiaren eliz haundira

behar da fedez hurbildu,

eta "Aitearen" eginaz bertan
barreneraino murgildu.

Ardurak, kezkak eten ta bota,
kanpo ta barru isildu.

Aita- Amaren bihotz-ondora
ume txikia lez bildu;

maitasunezko itsas hontara
ai, nor leiteken amildu!